



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/07/18

## **Emakumeek Bizkaiko historian bete daberen lekua erakusten dauen liburua argitaratu dabe Batzar Nagusiek**

“Ezkatuko Ondarea. Emakumeen Errealitateak Bizkaian” da Bizkaiko Batzar Nagusiek argitaratu dituen eta bere egoitzetan banatuko diran liburuaren eta liburuxkaren izenburua. Hitzaurreak emoten dau hurrengo orriek jasoten daberen funtsea. “Emakumezkoek munduan daberen eragina aldarrikatzea oso lotuta dago irakatsi deuskuen historia beste modu batera irakurtzeagaz”. Eta hori da liburuaren zazpi egileek, bost emakumek eta gizon bik, egiten dabena, hainbat ikuspegitik, emakumezkoek bete daberen benetako lekua, sarri askotan ezkutauta egon dan arren, landuz: Bizkaiko Andretatik pandereteretara, XVII. gizaldian sorginkeria leporatu jaken emakumeak, Batzar Nagusietako arte bilduma osatzen daberen gaur egungo emakume sortzaileak, edo oroimen historikoa berreskuratzen beharrean ari diran Sopuertako 14 emakumezkoak.

“Emakumearen eta gizonaren arteko bardintasuna bultzatzen lagunduko daberen elementu izan gura daberen lana da, Bizkaiko Batzar Nagusiek 2017ko Bardintasunerako Plana sinatu ebenean hartutako konpromisoa, hain zuzen be”, azpimarratu dau Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek gaur goizean argitalpen bikotxa aurkeztu dauenean.

Argitalpenak, Ainara Arranz Núñez, Ainara Martínez Matía, Aingeru Berguices Jausoro, Arantxa Pereda Angulo, Jaione Agirre García, Jon Irazabal Agirre eta Mariefi Pérez Elexperen zazpi artikulu eta ikerketa lan biltzen ditu. Liburua eta liburuxkea, 2018an Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzetan (Bilbon, Gernikan, Abellanedan eta Gerediagan), “Ondarea, emakumearen emaria” izenburupean Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Ondarearen ganeko Europako Jardunaldien barruan egindako jardueren laburpena dira.

Arantxa Pereda Angulok, emakumeek egin dituen eta Bizkaiko Batzar Nagusien arte bilduman dagozan artelanak aztertzen ditu. XX. eta XXI. mendeko emakume margolarien, eskulturagileen eta argazkilarien berrogeta hamar sorkuntza lan inguru dira, eta ibilbide parebakoa eskaintzen dabe emakumeek egin daberen euskal arte garaikidetik.

Gernikako Batzarretxean, emakumearen ikusezintasun historiko kontzeptua landu da, ondareko hainbat elementu aztertuz. Jaione Agirrek, “Bizkaiko andreak Jaurerriko buru Erdi Aroan” artikuluan, gizaldietan baztertuta eta gitxietsita egon diran emakume horreen garrantzia erreibindiketan dau. Maria Díaz Haroko I.a izan zan azpimarragarrienetako bat, eta Bizkaiko andre izan zan 1289tik 1344ra. Urte horreetan uribilduak sortu ebazan, Bilbori emondako uri gutuna berretsi eban eta ekonomikoaren ikuspegitik estrategikoak ziran portuak emon eutsazan jaurerriari.

Ainara Arranzek, bere aldetik, Gernikako Batzarretxeko Osokoen Aretoaren buru dan “eskumuina” artelanaren beste ikuspegi bat emoten dau, eta hainbat ondorio ataraten ditu. “XVI. mendeko zenbait udal-ordenantza genero-ikuspegitik aztertuta, bertan behera gelditzen da Erdi Aroko burukoak jantzi soil gisa aurkezten dituan ikuspegia, eta ageri-agerian azaltzen da gizarteak emakumeak kontrolatuko erabilten ebazan errepresinoari eta inposizinoari lotuta dagola”, adierazo dau Arranzek. Halanda be, garai haretarako harrigarria dan moduan, 1609an, Francisco de Mendieta margolariak, bere artelanean, alkateak jarri beharrean emakumeak jarri ebazan, “bizkaitarrek 1476ko garagarrilaren 30ean Aragoiko Fernando Bizkaiko jauntzat onartzeko egin eben muin-emotea” irudikatzen dauen margolanean.

“Isiltasuna eta absentzia izan dira XX. mendea ondo sartu arte emakumezkoen irudien ezaugarriak”, esan dau ondorio moduan Ainara Martínezek, Gernikako Batzarretxeko beirateak eta “Euskal lurra: lirikea eta Erlijinoa” (Gustavo de Maeztu, 1922) tripitikoa aztertu eta gero.

Argitalpenak, Aingeru Berguicesek Abellanedako egoitzan, gaur egungo Enkarterrietako Museoa, emakume pandereterek 1900. urtera arte Bizkaiko jai giroetan bete eben leku garrantzitsuaren ganean aurkeztu eban artikulua be jasoten dau. Bertan, hurrengo urteetan, “profesionaltzat” hartu izan diran musikarien ondoan jasan daben ezkututzea azpimarratuz.

Mariefi Pérez Elexpek, bere aldetik, Soperuako 14 emakumerengan zentrautako oroimen historikoaren ganeko lana egin dau, gizartearen barruan bete izan daben benetako lekua azpimarratuta. Francisca Castaños Ortiz, Isabelita Alvarez Ortiz, M<sup>a</sup> Carmen Garai Escuin, Milagros Martínez Correa, Pilar Dieguez Ortiz, Rosi Camino Urrutia, Visitación Dieguez Ortiz, Alejandra Martínez Ceballos, Charo González Aldana, Conchi Ulloa Diéguez, M<sup>a</sup> Elena Orrantia González, M<sup>a</sup> Rosa Aranceta Zuloeta, M<sup>a</sup> Teresa García Charramendieta eta Marta Ruano Terraza dira.

Gehienek oso gaztetan itzi behar izan eben eskolea, meategietan, soloan, mendian edo familiaren saltokietan behar egiteko, kotizazino barik eta aintzatespen barik. “Historiako atal hori beti ezkutatu da, emakumeak politika, gizarte eta erlijino arloan azpiratuta egon ziralako, baina argitara emon dogu behingoz”, azpimarratu dau Pérez Elexpek.

Bukatzeko, Gerediagan, Jon Irazabal Agirrek 1617an izandako gertakari bat aztertu eban. Durangoko Merinaldeak sorginen kontrako neurriak hartzea erabagi eban, emakume askok, emakume izateagaitik bakarrik, historian zehar jasan izan dituen ondorio kaltegarriak erakutsiz. “Mendetan zehar ereindako sinesmen erlijioso obsesiboen ondorioz, hainbat emakume erruduntzat jo ebezan”, azpimarratu dau.

Liburuaren eta liburuxkaren helburua ikerketa lana zabaltzea eta une honetatik aurrera emakumeak bete izan dauen lekua kontuan izango dauen historiaren, gizartearen eta ekonomiaren irakurketea egiteko tresna moduan erabiltea da, holan, errealagoa izan daiten. Momentuz, 1.000 liburu eta 3.000 liburuxka argitaratu dira, eta Batzar Nagusien Bilboko Egoitzan, Enkarterrietako Museoa eta Gernikako Batzarretxean banatuko dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

18/07/2019

## **Las Juntas Generales publican un libro que visibiliza el papel que han jugado las mujeres en la historia de Bizkaia**

“Patrimonio oculto. Realidades de las mujeres en Bizkaia” es el título del libro y del folleto publicados por las Juntas Generales de Bizkaia y que se repartirán por sus diferentes sedes. El prólogo da la clave de lo que encierran sus siguientes páginas: “la reivindicación del papel de las mujeres en el mundo tiene mucho que ver con realizar una relectura de la historia que nos han enseñado”. Y eso es lo que hacen las cinco autoras y dos autores del libro que abordan, desde diferentes perspectivas, el papel real, aunque muchas veces ocultado, que jugaron y juegan diferentes mujeres: desde las Señoras de Bizkaia hasta las pandereteras, las mujeres injustamente acusadas de brujería en el siglo XVII, las creadoras contemporáneas que integran la colección artística del Parlamento Foral o 14 mujeres de Sopuerta que trabajan en la recuperación de la memoria histórica.

“Es un trabajo que pretende ser un elemento más que ayude a impulsar la igualdad entre la mujer y el hombre, compromiso adquirido por Juntas Generales de Bizkaia con la firma del Plan de Igualdad de 2017”, ha destacado Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia en la presentación esta mañana de la doble publicación.

“Patrimonio oculto. Realidades de las mujeres en Bizkaia” reúne siete artículos y trabajos de investigación de Ainara Arranz Núñez, Ainara Martínez Matía, Aingeru Berguices Jausoro, Arantxa Pereda Angulo, Jaione Agirre García, Jon Irazabal Agirre y Mariefi Pérez Elexpe. Tanto el libro como el folleto son un compendio de las actividades realizadas en 2018 en las diferentes sedes de Juntas Generales de Bizkaia (Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga) dentro del marco de las Jornadas Europeas de Patrimonio organizadas por la Diputación Foral de Bizkaia bajo el título “Patrimonio, herencia de mujer”.

Arantxa Pereda Angulo analiza las obras realizadas por mujeres que forman parte de la colección de arte de las Juntas Generales de Bizkaia. Son medio centenar de creaciones de pintoras, escultoras y fotografías de los siglos XX y XXI que ofrecen un recorrido único por el arte vasco contemporáneo realizado por mujeres.

En la Casa de Juntas de Gernika, se ha trabajado el concepto de invisibilidad histórica de la mujer analizando diversos elementos patrimoniales. Jaione Agirre reivindica en su artículo “Las señoras de Bizkaia al mando del Señorío medieval” la importancia de estas mujeres relegadas y minusvaloradas durante siglos. María I Díaz de Haro fue una de las más destacadas, ostentando el cargo de Señora de Bizkaia desde 1289 hasta 1344, fundando villas, ratificando la carta-puebla a Bilbao y dotando al territorio de puertos económicamente estratégicos.

Por su parte, Ainara Arranz ofrece una nueva visión del cuadro “El besamanos” que preside el Salón de Plenos de la Casa de Juntas de Gernika llegando a varias conclusiones. “El análisis desde una perspectiva de género de varias ordenanzas municipales del siglo XVI desmonta la visión que presenta los tocados medievales como una simple prenda de vestir y nos muestra un uso ligado a la represión e imposición”, asegura Arranz. Sin embargo, “de manera sorprendente para su época”, en 1609 el pintor Francisco de Mendieta sustituyó a los alcaldes por mujeres en su lienzo que recrea “el besamanos que los vizcaínos realizan en Gernika el 30 de julio de 1476 aceptando a Fernando de Aragón como Señor de Vizcaya”.

“Silencios y ausencias han marcado las representaciones femeninas hasta bien avanzado el siglo XX”, concluye Ainara Martínez tras analizar las vidrieras y tríptico “Tierra Vasca: lírica y religión” (Gustavo de Maeztu, 1922) que decoran la Casa de Juntas de Gernika.

La publicación incluye también un artículo que Aingeru Berguices presentó en la sede de Abellaneda, actual Museo de las Encartaciones, sobre el importante papel social de las pandereteras en los ámbitos festivos públicos de Bizkaia hasta el año 1900, incidiendo en la ocultación posterior a la que han estado sometidas frente a los músicos considerados “profesionales”.

Mariefi Pérez Elexpe, por su parte, ha realizado un trabajo sobre memoria histórica centrado en 14 mujeres de Sopuerta, desgranando su papel real dentro de la sociedad. Son Francisca Castaños Ortiz, Isabelita Alvarez Ortiz, M<sup>a</sup> Carmen Garai Escuin, Milagros Martínez Correa, Pilar Dieguez Ortiz, Rosi Camino Urrutia, Visitación Dieguez Ortiz, Alejandra Martínez Ceballos, Charo González Aldana, Conchi Ulloa Diéguez, M<sup>a</sup> Elena Orrantia González, M<sup>a</sup> Rosa Aranceta Zuloeta, M<sup>a</sup> Teresa García Charramendieta y Marta Ruano Terraza.

Mujeres en su mayoría que tuvieron que dejar pronto a la escuela para ponerse a trabajar en las minas, en el campo, en el monte o en los comercios familiares, sin cotización ni reconocimiento. “Una historia que se ha ocultado por la sujeción política, social y religiosa a la que estuvieron sometidas pero que hay que sacar de una vez a la luz”, destaca Pérez Elexpe.

Finalmente, en Gerediaga, Jon Irazabal Agirre estudió un episodio ocurrido en 1617, cuando la Merindad de Durango decidió tomar medidas contra las brujas, mostrando de esta manera las connotaciones negativas que, por el hecho de serlo, han tenido que sufrir muchas mujeres a lo largo de la historia. “Las creencias religiosas obsesivas sembradas durante siglos llevaron a la culpabilización de un buen número de mujeres”, subraya.

Esta publicación y folleto pretenden difundir la labor de investigación y servir de herramienta para realizar a partir de ahora una lectura de la historia, la sociedad y la economía que tenga en cuenta el papel de la mujer y que sea, por tanto, más real. De momento, se han editado 1.000 libros y 3.000 folletos que se repartirán en la sede bilbaína de las Juntas, en el Museo de las Encartaciones y en la Casa de Juntas de Gernika.